

GIZARTE ETA INGURUMEN ULERTZEA ETA ESKU-HARTZEA AZALTZEN

1) Ingurumen-errealitatea:

Gaur egun, egiturazko ingurumen-krisialdian gaude sartuta ludi guztian, eta ezerk ez digu pentsarazten berez, hots, ingurunearen beraren berrantolaketa naturalaren prozesuei jarraikiz, itzulgarria izango denik; gizakiak, krisialdia hau sorrarazi duenak, joera hau itzultzen ez badu behintzat.

Horra hor, modu eskematikoan, krisialdi hau argitzen duten ingurumen-adierazleetako batzuk:

Baso-soiltzea
Leherketa demografikoa
Gizarte- eta ekonomia-arrailak
Uraren kutsadura
Airearen kutsadura
Basamortutzea
Lurzoruaren higadura
Berotze globala
Dibertsitate biologikoaren amaiera
Ozono-geruzaren suntsiketa
Baliabide naturalen ahidura

Krisialdi hau, egun nagusi den garapen-ereduaren porrotaren adierazle argia da. Garapen-eredu horrek ekoizpen eta kontsumo amorratuak ditu euskarri gehienbat, ereduaren sostengu diren bitarteko eta xede direnak eta atzeraelikatzen direnak. Eredu horren oinarri ideologikoa neoliberalismo ekonomikoa da, eta oinarri operatiboa, merkatu-sistema, gizarte-prozesu guztien eragile, aurrerapen, hazkunde eta aberaste kontzeptu ez-osoak absolutizatzen dituztenak baina gizarte-garapena (bere esanahi osoan), nabarmenki behintzat, kontuan hartzen ez dutenak.

Horra hor makrosistema hau bereizten duten ekile nagusienetako batzuk, hain zuzen, sistema elikatzen dutenak:

Gizabanakoaren jabetzarako eskubidea
Diru-merkatua
Nazioarteko merkatua
Ekoizpen kontzeptua
Mozkina maximizatzea
Ingurumena negozio-iturri gisa

Eragile hauek nagusi izateak, ondorio hauek dakarzkie gizakiei, oinarrizko eta ageriko begiratua eginez:

- Ez ditu hil edo biziko premiak betetzen
- Gizakien osasuna hondatzen du
- Biosfera hondatzen du
- Baliabide naturalak ahitzen ditu
- Giza balore unibertsalak gaizkitzen ditu
- Desberdintasunak, indarkeria eta segurtasunik eza sortzen ditu
- Oinarrizko giza eskubideak murrizten ditu

Eredu horrek, iraunarazi eta hazteko (“aberasteko”), **natura-ingurunea du baliabide-iturri nagusi**, eta, bistan denez, natura-inguruneak ezin ditu ereduak eskatzen dituen helburuak eta abaguneak bete. Ondorioz, baliabide naturalak berritu beharrean, ahitu egiten dira, eta, ondorioz, gizartean bidegabekeria eta desoreka sortzen dira, eta, ludi guztian, epe luze eta ertainera, eredu hau bidera ezina da gizateriarentzat.

2) Ingurumen-krisialdia krisialdi humanitarioa bezalakoa da. Biak elkarren azalpen dira

Krisialdi humanitario askoren (gosetea, gerra, pobrezia, pandemiak...) zergatien edo jatorrien artean, ingurumen-arazo jakinak daude. Hainbat kontzeptuk, hala nola, politikak, merkataritzak, mugak jartzeak anaxioek, nazionalismoek, kultura- edo erlijio-desberdintasunek, besteak beste, askotan, bat egiten dute puntu berean: **lurralde-alderdia**.

Lurraldeek, mugak ez ezik, ekoizteko ahalmenak, erein daitekeen lurra eta aberastasuna (minerala, naturala eta gizatiarra) ere finkatzen dituzte. Lurraldetasuna da, herrialdeetan desberdintasunak sortzen dituen eta herrialde batzuei abantailak ematen dizkien lehen horma.

Lurralde batek bertoko biztanleen biziraupena osorik bermatzen ez badu, edo hirugarrenek esplotatzen badute, bi ondorio gertatzen dira aldi berean: lurraldea andeatu egiten da, baita bertoko biztanleen gizarte- eta ekonomia-prozesu guztiak ere. Horren ondorioz, sorgin-gurpila sortzen da, eta aldi berean, problematika humanitarioak eta ingurumen-problematikak sortzen dira, eta askotan ez dago jakiterik haietako zein den jatorria eta zein, ondorioa.

Analisisgile kualifikatuek, krisialdi humanitarioak kroniko bihur daitezkeela ohartarazi dute, baita beste batzuk ager daitezkeela ere, ingurumen-arazo globalen eta larrien ondorioz gertatuko direnak (oso larriak, gizakien biziraupenari dagokionez: ur-eskasia, klima-aldaketa, baliabide naturalak ahitzea, ekoizpenaren lehen sektoreak alde batera uztea...). Problematika hauek ez dute eraginik izango garapen gutxiko herrialdeetan (zeren eta problematikan murgilduta dauden), gaur egun “ongizate-estatuan” bizi direnen lurraldeetan eta herrialdeetan baizik, euren ezaugarri nagusia hauskortasuna baita.

2) Ingurumen-kalitateak gizartean eta gizakiengan sortzen dituen ondorioak

Ingurumen-kalitatea egoteak al ez egoteak pertsonen bizitzetan eta gizarte-ingurunean duten ondorio onak eta txarrak aipatuko ditugu labor-labor.

Ondorio txarrak

Dinamika naturalak suntsitzeak, agortzeak, ahazteak edo ulertu ezinak, ondorio hauek sortzen dituzte gizakiarengan, besteak beste:

- Gaur egungo ekoizpen- eta kontsumo-moduak sortzen du ingurumen-arazo gehien eta gizartean beste arazo batzuk sortzen ditu edo sortzen parte hartzen du (langabezia-tasak, lan-merkatua kolokako bihurtzea, oinarrizko gizarte-zerbitzuak edo baliabideak eskuratzeko zailtasuna, pobrezia-poltsak sortzea...). Problematika guztiek gizarte-bazterkeriako prozesuak sortzen dituzte, baita gizakientzat oso suntsiztaileak diren arrisku-faktoreak ere.
- Egungo bazterkeria- eta pobrezia-poltsa asko, gehiegi ustiatu diren ingurumen-ingurunetan gertatzen dira. Baliabide natural iraunkor eta egonkorren bidez garapena eta aberastasuna sortu ezinak, pobrezia-egoera horiek gainditzea galarazten du, eta pobrezia kroniko bilakatzen da.
Gehiegizko ustiapena, aberatsak diren testuinguru sozioekonomikoetatik testuinguru txirotuetera geratzen da. Murruntza-egoera hau nazioartekoa, naziokoa edo nazioz haraindikoa izan daiteke; ez da bakarrik gertatzen herrialde desberdinetako testuinguru desberdinetan (esaterako, Europak Afrika ustiutzen du), herrialde bereko testuinguruetan baizik (esaterako, multinazionalen higiezinaren espekulazioak, beste zona batzuetan baliabide naturalak ustiutzen dituztenak). Batzuentzat baliabide naturalak mozkin ekonomiko dira; beste batzuentzat, berriz, garapena izateko aukera arriskuan jartzea esan nahi du, euren ingurunea eta baliabide naturalen suntsiketaren lepotik.
- Baliabide naturalen gabezia edo ahitzeak, hauxe eragin, eragiten eta eragingo du: goseteak, gerrak, egiturazko indarkeriazko egoerak, inmigrazio jendetsuak, arraza arteko arazoak, basamortutzea eta pandemiak, hasiera batean, herrialde eta eskualde txirotuenetan, eta epe luze eta ertainera, *a priori* garatuagoak diren eskualdeetan.
- Herrialde aberastuetan ere, ingurunearekin harmonian ez bizitzeagatik, osasun-arazoak sortzen dira, bai fisikoak bai psikologikoak.
- “Lehen mundua” delakoaren “amnesia” soziala, balizko ongizateak sortutakoa, sistema neoliberalak areagotzen du, zeren eta, gure bizimodua bizimodu normaltzat hartzea egiten baitu, bai eta gure bizimodua ez dutenei “garapen-bidean daudenak” edo “pobreak” esatea ere.

Eredu honek, “gogobetetzearen kultura” (J.K.Galbraith) bezala ezagutzen denarekin lotu denak, autogogobetetasuneko, lehiakortasuneko, konformismoko eta insolidarotasuneko jarrerak eta sentimenduak sortzen ditu, gizartean bidezko, legezko eta merezitako garapen-eredu eta bizimodu bezala sustraitzen direnak. Nolabaiteko garapen-maila lortu ez duten guztiak (beraiek edo beren gobernuak), lortu ez izanaren arduradun nagusitzat hartzen dira eta, hortaz, euren egoera eragozgarria merezi dute nolabait. Gustura edo gogobete daudenen laguntza da lortu ahal duten guztia.

Ondorio onak

- Ingurune naturalarekin harmonian bizitzeak, ondorio on hauek sortzen ditu gizakiengan, besteak beste:
 - a) Osasun hobea, fisikoa nahiz psikologikoa, izateko oinarriko baldintzak daude.
 - b) Gizarte- eta lan-aukerak sortzen dira, ingurune jakinetara egokituak eta benetako premia hurbilak betetzen dituztenak.
 - c) Izaera desberdineko erakundeen artean sareak eratzen dira.
 - d) Lehen sektoreak (nekazaritza, arrantza eta abeltzaintza) sendotzen dira eta iraunarazteko bermea ematen da, nahitaezkoak baitira gainerako inguruneak eta pertsonak elikatzeko.
 - e) Inguruneari dagokionez aberatsa den inguruneak, garatzeko eta gizarteratzeko aukerak ematen dizkie talde baztertuei eta pobrezia-poltsei.
 - f) Aisialdi osasungarria eta aberasgarria ahalbidetzen du, kontsumistak bakarrik diren aisialdietatik urrun dagoena.
 - g) Pertsona bakoitzaren bizi-prozesuak (garapen fisikoa eta psikologikoa, afektuzko garapena, garapen soziala, hezkuntza-garapena....) hobeto moldatzen dira ingurune natural batean, pertsonen berezko ingurunea baita.
 - h) Bizi-kalitatea hobeko baten adierazle subjektiboak ahalbidetzen dira, hala nola, gogobetetasun pertsonala eta bizitzaren betetasuna.
 - i) Halaber, esparru egokia da, gizakiarentzat onak diren gizarte-prozesuak gauzatzeko (gatazkak ebatzea, erkidegoko bizitzan parte hartzea, erabakitzeko gaitasuna, autonomia...).
 - j) Ezein oinarriko eskubide pertsonal dago mugatuta (giza eskubideak, berdintasunerako eskubidea, desberdin izateko eskubidea...).

Hori guztia dela eta, eta errealitate hau oinarri hartuta, ez da zuzena ingurumen-problematikaz eta gizarte-problematikaz bereiz aritzea. Zuzen dago GIZARTE ETA INGURUMEN PROBLEMATIKAZ aritzea, modu homogeneo batean leheneratu beharko dena. Ingurumenaren ikuspegitik, kontua da, labor esanda, ingurumen-ikuspegi zatikatua gainditzea, gure bizikidetzaren esparru globalaren barruan sartuko duguna eta gizakion bizi-kalitatea hobetzea ahalbidetuko duena.

- Era berean, gizarte-arloan diharduten **agente** edo **ekile** guztiek, ezin dute alde batera utzi sareko eta zeharkako problematika hau. Konturatu behar gara, problematika edo egoera baztertzaileren jatorrien eta ingurumen-krisialdiaren artean batasun haustezina dagoela.

Askotan, badirudi ez dagoela harremanik, baina zergatietan sakontzen badugu, ondorio hau atera daiteke: neoliberalismoa eta teoria honekin loturiko ekoizpen-moduek, merkataritzako edota gobernuetako interesek lagunduta edo indartuta, sorten dituzte beraiek bakarrik gizakiari bazterkeria dakarzkieten egoera guztiak, eremu orokorrenetik eremu pribatuenera.

3) Gizarte- eta ingurumen-osotasuna ulertzeko modu eskasa

Gaur egun, banaka nahiz taldeka, egoerak eta egoeren problematikak zatika edo bereiz aztertze joera arrunt bihurtu dugu.

Gobernuz kanpoko erakundeek pobrezia aztertu eta pobrezian esku hartzen dute, gizarte-mugimenduek gizarte- eta kultura-arloa aztertu eta arlo horretan esku hartzen dute, ingurumen-erakundeek ingurumenean esku hartzen dute... Eta gizakiok, gehien interesatzen zaizkigun edo kezkatzen gaituzten arloak aztertu eta arlo horietan esku hartzen dugu, zentzuz eta eraginkortasunez gure ekarpen solidarioa esparru jakin batera mugatuz (boluntariora, dohaintzak...).

Problematika bat eta krisialdi orokorrak ulertzeko modua (modu honek dena baldintzatzen du eta denak modua baldintzatzen du), ordea, gure gizarteko edo bananako jokabidearen errealitate izateko urrun dago. Komunikabideek berriak eta problematikak ataletan banatzen dituzte, eta erakundeek euren berezitasunean jartzen dute arreta eraginkorragoak izatearren, eta, horrela, hutsarte sortzen da gizarte-arlo desberdinen artean, zeinek izugarri zailtzen du elkarrekin loturiko problematikak ebazteko lan bateratua.

Horiek horrela, atal-krisialdiak direlakoak ebazten esku hartzen duten guztien ondo egitea onartuz, oso gutxitan aurkitzen ditugu modu globalean esku hartzen duten agenteak, hots, problematika edo krisialdi baten jatorri diren zergatiak faktore anitzeko ikuspegitik ekinez.

Lotura hau badago zehaztuta ingurunearen gaineko teorian ("*teoría ambientalista*") (garapen iraunkorra, hiru ardatzekin: gizarte-ardatza, ekonomia-ardatza eta ingurumen-ardatza). Sistema konplexu bezala zehaztuta dago, elementuen artean batura baino, elkarreragina duena.

4) EDE taldearen jarrera, gizarte- eta ingurumen-ikuspegitik

EDE taldeak gizartearen eta gizakien garapenean esku hartu eta bitarteko izan nahi du, bere erakundearen eta egitarauaren bitartez.

Urte askoko jardunbidea eboluzionatuz joan da errealitateen bilakaerarekin batera, eta gizartegintzako arlo berriez arduratuz joan da.

Pixkanaka, hainbat arlo gehituz joan dira, hala nola, astialdiko hezkuntza, bazterkeria, gizarte- eta kultura-sustapena edo berariazko taldeak (haurrak, emakumeak, ijitoak, etorkinak boluntarioak...).

Gizarte zuzenagoa eraikitzeko misioarekin lotutako bere lanaren eraginkortasuna eta eragina (batzuetan, ukaezinak, beste batzuetan, eztabaidagarriak) aintzat ez hartuz, egia da EDE taldeak ere lan egiteko modu zatikatua arrunt bilakatu duela, eta bere lan-arloak talde edo esparru desberdinen arabera zehaztu dituela.

Garai batean, ingurumena ere izan zen banatsetako bat, gutxi garatua, zeren eta orduan ingurumenari buruzko gogoetak ez zuen natura gizartearekin lotzen. Osagarri, baliagarri eta edertzat hartzen zen ingurumena, astialdiko monitoreen lanaren osagarri, inguru paregabea hiritik ihesaldiak egiteko, "Hiria: kutsadura – Mendia: Natura" bikoiztasun zaharkitu eta faltsuaren arabera.

UNESCOK, teoria "sozioambientalista"ren hasieran, Belgradeko Gutunaren (1975) Ingurumen Hezkuntzaren oinarrizko printzipioen artean hauxe jaso zuen: "ingurumena osotasunean hartu beharra dago, hau da, natura-ingurunea eta gizakiak sortutako ingurunea, hots, teknologikoa eta soziala (ekonomikoa, politikoa, teknikoa, historikoa, kulturala, morala eta estetikoa). Lehen aldiz, ingurumena sistema konplexutzat hartzen da".

Gaur egun, badakigu Natura dena dela, hirietako espaloiak barne. Gizakiok garatu eta bizi garen ingurunea osatzen duela denak.

Era berean, gizarte- eta ingurumen-gogoetan aurrera egin da, elementuen arteko elkarreragina onartu baita; gizarte-agenteei, ordea, ez dute erabat onartu.

EDE taldeak, gizarte-gaietako kudeaketan duen esperientziaren jakinduriari esker, baldintza ideologikoak, estrategikoak eta operatiboak ditu, taldeak gizarte-gaietan dituen helburuekin eta xedeekin bat etorriko den egitaraua garatzeko, eta ingurumen-arloa ezarri eta kohesionatzeko, gizarte berdinzalea, zuzena eta solidarioa eraikitzeko asmoan aurrera egiteko, horiek baitira, azken buruan, gizarte antolatzeke eredu berriaren oinarriak.

- Ideologikoki: Gizarte-arloa eta ingurumen-arloa, arlo bakarra balitz (gizarte- eta ingurumen-ikuskerak).
- Estrategikoki: Herritarrei, hirugarren sektoreko erakundeei eta gizarte-agenteei ingurumenaren aldeko defentsaren eta inplikazioaren berri emanaz, eta ingurumena bera, ikuskera iraunkor batetik, talde horientzat eta taldeon helburuentzat aukera-iturri bilakatuz.
- Operatiboki: Gizarte- eta ingurumen-ikuskerak batetik lan eginez, ingurumen-arloan lan egingo duten egitarau, zerbitzu eta baliabideen bidez, aldi oro eta ekintza guztietan honako hauek kontuan hartuz:

* Egitura sozioekonomikoa eta sortzen diren aukerak eta onurak.

* EDE taldearen zerizanaren alderdi soziala eta pertsonala, alderdi “ekologistan” edo “naturalistan” bakarrik oinarritzen ez dena.

JOSE FELIX TOMÁS

(Gizarte eta Ingurumen arloko arduraduna – EDE TALDEA)